



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/03/02 Udaletxean 18.00-20.30



Gaurkoan bildu gara,

- Carlos Gonzalez (Irabazi)
- Eñaut Agirre (Herritarra)
- Iñaki Dubreuil (PSE)
- Jose M^a Gomez (Herri ekimena)
- Edurne Huesa (Landarlan Ingurumen elkarte)
- Patxi Arrospide (Herritarra)
- Emilia Roman (Herritarra)
- Miren Nekane Apaolaza (Herritarra)
- Angelica Moreno (Alkateordea, Alkatearen izenean)
- Manuel Iturrioz (EAJ)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Gai ordena

Bileran ondoko gaia landu zen:

1. Komunikazio kanpainako lehen bilera

Komunikazio kanpaina

Komunikazio kanpainaren lehenengo bileran Edurnek Landarlan-en izenean eta bere izenean hainbat aipamen egin zituen eta hondakin mahaiko beste kideak honen inguruan bilera urgente bat eskatu zuten.

EAJ: Lehenengo gauza harrিতuta eta indignatuta geratu zela komentatu zuen. Sasieta eta ingurumen teknikariak emandako datuak dudatan jarri zenituen, bilera apurtzea zihoazela ematen zuen eta honen inguruko azalpenak beharrezkoak dira eta berriro ez dela gertatuko jakitea ere bai.

PATXI: Bi teknikarien lanak dudatan jarri ziren. Aurkezpena hondakin mahaikoa zen eta denak ados geunden aurkezpen honekin. Adostasunez onartu zen. Dudatan jarri ziren aurkezpeneko datuak.

EMY: Herritarrei emandako itxuran konfiantza falta bat somatzen zen. Nahiko itxura txarra eman genuen.

EAJ: Gure artean denak desadostasunean ginela ematen zuen.

LANDARLAN: Aurkezpena prestatu zen, proposamenak egiteko aukera egon zen, datu batzuk aurreratu dira baina aurkezpena ez zen adostu. Nahiz eta teknikariak datu hori eman guk dudatan jarri dezakegu.

HERRI EKIMENA: Datu batzuk falta dira baina beste batzuk soberan daude. Lotsa eman genuen.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/03/02 Udaletxean 18.00-20.30



IRABAZI: Edurnek bidali zuen emaila ez da onargarria. Beraiek esandako datuak ez badira jartzen ez dutela aurkezpenarekin bat egingo. Nik email honi oso gogor erantzun nion. Nik nahi ditudan datuak jartzen badira ondo eta bestela aurkezpenarekin ez gaude ados.

LANDARLAN: Aurkezpena ezin dugu onartu bere osotasunean.

IRABAZI: Atzo Sasietako teknikaria kuestionatu egin zen teknikari bezala eta mahaiarekin ere kuestionatu egin zen. Denen artean gaiak adostu ditugu eta ezin dugu gidoi horretatik atera.

LANDARLAN: Aurkezpenean Beasain, Urretxu, Zumarraga eta Legazpiko datuak azaltzen dira. Zegama, Ataun eta Ormaiztegiak zergatik ez dira jarri.

TEKNIKARIA: Hiru herri handienak jarri ditut, erakusteko Ordiziak zein ondo egiten ari den besteekin alderatuz.

ALKATEORDEA: Lazkaoko datuak ere ez ditu jarri.

EAJ: Teknikariak esaten dutena onartu egiten da. Baina orain ditugun datuak ez dira onartzen.

EÑAUT: Edurnek beti hitz egin du eta gauzak garbi esan ditu. Zergatik ez dira azaltzen sistema berdina duten udalerrien datuak.

ALKATEORDEA: Sistema mistoaren datuak eskatu dira baina arazoak daude datu hau lortzeko. Datu hau dudatan jartzen badugu, datu guztiak dudatan jarriko ditugu.

IRABAZI: Aurkezpena ez da sistema baten aldekoa. Datuak dudatan jarri daitezke baina hondakin mahaiaren, ez aurkezpeneko bileretan.

PATXI: Galderan ere adostu ondoren aldaketak egin dira.

IRABAZI: Komertzioetako datua ez da jartzen. Ez dauzkagu sistema mistoaren datuak.

EMY: Aurkezpeneko datu batekin herritarrak aldatuko lukete beraien botua.

LANDARLAN: Nik uste baietz.

IRABAZI: Bakoitzak kanpainan nahi duena esan dezake.

EAJ: Norbaitek aportazio bat egin dezake argumentu hori indartzeko baina ezin da teknikarien lana desprestijiatu.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/03/02 Udaletxean 18.00-20.30



IRABAZI: Lanpostuen kontuan atzo esanda 5 eta erdi lanpostu sortzen direla nahikoa zen. Ez zen beharrezkoa esatea datu hori aurkezpenean joan behar zuela.

EÑAUT: Agian bilera bat faltatu da aurkezpena adosteko. Sasietak eman digun datu guztiekin agian ez gaude ados eta hauek agian ez ziren aurkeztu behar.

TEKNIKARIA: Aurkezpena egiteko sistema mistoaren datua beharrezkoa zen. Orain datua dugu baina ez dugu onartzen.

LANDARLAN: Emandako datua oso harrigarria da.

EAJ: Baina datu batzuk segituan justifikatzen ditugu. Datu guztiekin egin beharko genuke.

IRABAZI: Sasietak emandako datua sinestu egin behar dugu. Datu oso deigarriak dira baina denak elkarrekin joan behar dugu datu hauekin. Azto aurkezpenean datu bat kuestionatu zen, edukiontzien ordainketa. Sasietak ordaindu egin behar duela exigitu egin behar da.

LANDARLAN: Hori zure iritzia da baina mahaiaren ez da adostu.

IRABAZI: Bilera gehiagotan esan dut eta aktatan jasota egongo da. Mahai honek defendatu eta exigitu behar du Sasietak egin behar duela ordainketa. Sasietan bozkatu behar den garaian espero dut Ordizikoa bi botoak Sasietak ordaindu behar duela esango dutela. Bestela ardurak eskatuko ditut.

EÑAUT: Aurkezpenean jartzen bada erabili daiteke liskarra sortzeko.

EAJ: Informazio orokor batekin nahikoa da, garrantzitsuena kontsulta egitea da.

IRABAZI: Hurrengo bileratan zer gertatuko den jakitea gustatuko litzaidake.

LANDARLAN: Datu asko daude dudatan jartzen ditugunak. Komertzioetako bilketaren datua ez dago, balantzea ez dago,

TEKNIKARIA: Aurkezpeneko datuak mahai honetan exigitu dira.

IRABAZI: Teknikariak emandako datuak jarri behar dira aurkezpenean. Denen artean edukiontzien ordainketa Sasietak egin behar duela eskatzea proposatzen dut.

HERRI PLATAFORMA: Sasietak ordainduko du.

ALKATEORDEA: Beasainen ez da sistema aldaketa eman eta Ordizian bai. Horregatik esaten da bigarren aldaketa ez dutela ordainduko baina Sasietako gure ordezkariak borrokatuko dute lortzeko.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/03/02 Udaletxean 18.00-20.30



EÑAUT: Datuak ez ditut ulertzen. Sasietari beste ereduekin egin duen bezala, atez atekoaren desglosea eskatu behar zaio.

TEKNIKARIA: Datuak beste datu batzuen eragina dute.

EAJ: Kriterio teknikoak norma bezala onartu behar dira. Denak mahaiko kamiseta berdina eduki behar dugu.

EÑAUT: Datu batzuk ezin izan ditugu galdetu. Nik duda asko dauzkat. Desglosea eskatu behar da.

LANDARLAN: Datuak azaldu egin behar dizkigute. Nik ulertu egin nahi ditut. Ni haserre nengoen eta agian formak ez ziren izan egokienak.

IRABAZI: Eredua lehenago adostu izan bagenuen, hau dena egiteko denbora gehiago izango genuen. 10 egunetan moldatu dugu defendatu behar duguna.

EÑAUT: Datuak kontrastatzea denak nahiko duzuela pentsatzen det.

PSE: Alkateak eskatzeko falta diren datuak.

IRABAZI: Sasietarentzat Ordiziako galdeketak prioritate oso izan behar du., Alkateak eta Sasietako bi ordezkariak eskatu behar dute.

EAJ: Hemendik aurrera zer egin behar dugu. Ez banago ados titulu pertsonal bezala azalduko dut.

LANDARLAN: Baina aurkezpenean sistema mistoaren datua jarri behar da.

TEKNIKARIA: Sistema mistoa duen edozein udalerria ezin dut konparatu Ordiziarekin.

TEKNIKARIA: Urretxu eta Zumarragako datuak kenduko ditut. Hurrengo komunikazio bilerarako datuak aldatuko dira.

LANDARLAN: Baina jendeak galdetzen du nondik atera den sistema mistoa. Sistema hau azaldu egin behar da.

TEKNIKARIA: Legazpiko kasua dugu. Baina bertan bi sistema batera daude eta datuak ez daude desglosatuta.

LANDARLAN: Goierriko datu onenak sistema mistoa duten udalerrietakoak dira. Egia da Ordiziarekin konparatzeko ez dagoela udalerririk.

IRABAZI: Urretxu eta Zumarraga kendu eta zein udalerrri jartzen dugu.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/03/02 Udaletxean 18.00-20.30



PSE: Edo udalerri guztiak kentzen ditugu.

IRABAZI: Herritarrak arrazoi ezberdinengatik emango du botua.

EMY: Herritarrak bere botua ez du aldatuko datu hauengatik. Neretzat datuak ez dira garrantzitsuak.

TEKNIKARIA: Urretxu eta Zumarraga kendu eta Beasain eta Legazpirekin konparatzen dut.

PSE: Bilera urgenteak egin behar ditugu edozein barne arazoa dugunean.

LANDARLAN: Prozesu honen balorazioa eta jarraipena egin beharko genuke.

EÑAUT: Atez atekoaren balantze ekonomikoa lortu behar dugu eta hau norbaitek azaldu beharko liguke.

TEKNIKARIA: Bihar eskatuko dugu.

IRABAZI: Datua dugunean aurkezpenean jarriko da.